

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila: 1. saria

ALAIIA, BELTZA ETA LEPOKOAREN 4 MUNDUAK

Amaia Zabala Vidaurre



Bazen behin neska bat Alaiia izenekoa. Alaiak untxi bat zuen eta untxia Beltza deitzen zen. Beltzak Alaiaren ohean lo egiten zuen gauero.

Alaiaren aitona hil zenean, bere amonak aitonaaren lepoko miresgarri bat eman zion Alaiari.



Alaiaren aitona

Goiz batean, Alaiia esnatu zen eta Beltza ez zegoen bere ondoan lo egiten. Bat-batean, bere lepoko miresgarritik argi bat atera zen. Argi horretatik lau mundu desberdin agertu ziren: txokolatzkoa, azenariozkoa, gozokizkoa eta suzko mundua.



Alaiak ez zekien zer egin. Orduan, gezi bat atera zen lepokoaren argitik (ordenagailuko geziaren modukoa). Alaiak lau munduen artean bat aukeratu behar zuen. Beltzarengan pentsatzen, azenariozko munduan sartu zen. Etxe txiki bat zegoen

sarrera polit-polit batekin. Azkar-azkar Beltza bilatzen hasi zen. Baina, konturatu zen denbora osoan leku berdinetik pasatzen ari zela. Hori dela eta, etxeke atea zabaldu zuen. Zabaldu eta gero, beste ate bat zegoen eta, horrela, askoz gehiago errepikatu ziren.

Azken atea zabaltzerakoan, suzko munduan agertu zen. Han, errege batekin



topatu zen eta erregeak eskuetan Beltza eramaten zuen. Alaiak esan zion:

- Aizu! Zer ari zara egiten nire untxiarekin?

Erregeak erantzun zion:

- Hau zure untxia da? Berriro berreskuratu nahi baldin baduzu, nirekin borrokatu beharko duzu.

Zuk irabazten baduzu zure untxia eramango duzu eta nik irabazten badut untxia niretzat izango da.

Alaiak baietz esan zion. Baina beldur handia zuen, erregea oso indartsua zelako.

Alaiak animalia guztiei deitu eta esan zien:

- Aizue! Erregeak eta biok borroka bat izango dugu! Zer nahi duzue, pertsona indartsu baina gaizto baten taldean egotea, edo pertsona on baten taldean egotea?

Guztiek pertsona onaren taldean egon nahi zuten. Borrokaren eguna iritsi zen, eta erregea animalia guztiak eta Alaiak ikusi zituenean, asko beldurtu zen. Hainbeste beldurtu zen, untxia askatu eta lasterka alde egin zuela.

KATU-KATU IPUINA BUKATU ETA ZUEN FAMILIEKIN DISFRUTATU!!